

Goscinny & Sempé
Nikolas Txikiren historia ezezagunak 1
Itzultzaileak: Koro Navarro eta Josu Zabaleta
Elkar
Donostia, 2005

Nikolas Txikiren nostalgiaz

Nikolas Txiki XX. mendeko haur literaturako klasiko bat da. Gure artean *Nikolas Txiki*, *Nikolas Txikiren errekreoak*, *Nikolas Txiki eta bere lagunak*, *Joakinek arazoak ditu* eta *Nikolas Txikiren oporrak* argitaratuak ziren 80ko hamarkadan, eta bosten artean hogeitaz edizio baino gehiago agortu zituzten (eta ez da marka makala, itzulitako liburuak zirela kontuan hartuz).

Nikolas Txikiren istorio “berri” hauek argitaratzeko proiektua Goscinny-ren alarguntsarena izan zen lehenbizi. Hura ere hil, eta alabak gauzatu du azkenean. 60ko hamarkadan *Sud-Ouest Dimanche* egunkarian Sempé-ren irudiez lagunduta astero argitaratzen zituen istorio gehienak arestian aipatutako bost bildumatan argitaratu ziren liburu modura, baina beste batzuk tiraderan gordeta geratu omen ziren. Horiexek dira 2004an, Frantzian, laurden tamainako liburu mardul batean argitaratu ziren istorioak, eta horregatik paratu dut berri adjektiboa komatxo artean. Gaur ume direnei bezainbeste, duela hiru hamarkada ume izandakoei ere zuzendu zitzaizkien liburuak, Nikolas Txikiren nostalgikoei, hain zuzen ere. Anbiguotasun horretan harrapaturik, edizioak jaso zituen kritika gehienetan liburukotea esku artean ibiltzeko zailtasunak aipatzen ziren. Hori dela eta, Nikolas Txikiren laurogei istorio berriak hiru liburukitan argitaratu dira gurean.

Nikolas Txikiren istorio gehienak eskolaren inguruko pasadizo errealista-umorezkoak dira, egileen ironiaz zipriztinduak. Narrazioa oso zuzena da beti: Nikolasek berak orainaldian kontatuak, istoriook bizitasun aparta erakusten dute, eta ume zein helduak algarra batean jartzeko gai dira. Pertsonaiak, Nikolas eta haren lagunak, lauak dira: aberaskumea, tripazorroa, indartsua, axkarra... Gainera, istorio laburrak direla kontuan hartzen badugu, liburuei jarri dieten “12 urtetik aurrera” gomendioa 9-10 urtera jaitsi daitekeela uste dut.

Erreferentzia asko arrotz egingo zaio gaur eguneko irakurleari, ezinbestean: edozein istilu muturka konpontzea, eskolako zigor gisako kopiaketak, eta beste asko beste garai batekoak baitira. Gauza bera gertatzen da pertsonaien izenekin: Alzeste, Clotaire, Eudes, Geoffroy, ez baitira gaur egun ohikoak. Haurtzarora, ordea, bat eta bera izan da eta izango da beti. Goscinny-ren alabak egileen jatorriei buruz esandakoa aplikatu dakioke garai-aldeari ere: “...txikitako oroitzapenak partekatu zituzten biek. Buenos Airesen edo Bordelen, usain bera dario klarionari...”.

Manu Lopez Gaseni